HEMENDIK

Borrokak ibilerarik badu, hau da gurea

NAFARROAKO AGER EREMUA
FEMINISTATZEKO FANZINE POLITIKOA

AGER SUTAN

Euskal Herriko Gazte Feministak

Euskal Herriko Gazte Feministon Bide-Orria

2026

AURKIBIDEA

1. **Sarrera**

2. **Nola heldu gara honaino**

    1. Nondik ekingo diogu? Hiru zapalkuntza sistemen begirada

3. **Ager eremuko testuinguru soziopolitikoa**

4. **Zertara goaz? Feminismotik bizi nahi dugu, eta bagoaz!**

    1. Beraz... zer da gida hau?

5. ***Feminismotik bizitzak eraikitzeko gida***

    1. *Feminismotik bizi bai, baina, zertaz ari gara?*

        - *ARIKETA: Espazioak feministatu*

    2. *Espazioak feministatzeko esperientzia kolektiboak*

6. ***Eraso matxistei aurre egiteko protokoloa***

    1. *Herri mugimenduetatik*

        - *ARIKETA: Nire herrian, zer eta nola?*

    2. *Udaletxeetatik*

        - *ARIKETA: Nire herrian, zer eta nola?*

SARRERA

Desesperantza garaiak bizi ditugu, krisialdi orokortua, olatu erreakzionarioaren gorakada, gerra eta basakeria. Krisia sistemikoa da, eta sistema zisheteropatriarkal kapitalista indarrez inposatzen ari dira. Horregatik, egungo eredua irauli, eta **bestelako jendarte eredu bat eraiki asmo duten mugimendu zein militanteak jopuntuan gaude.**

Feministontzat ere garai latzak dira. Iraultza eta garaipen feministen aurrean, gu irensteko asmoz, gure gorputz eta bizitzetan bizi dugun erreakzio patriarkala martxan da. Desesperantzaren erdian baina, bada itxaropenerako aukerarik. **Euskal Herriko genealogia feministak erakutsi digu borrokak, eta are, militantzia feministak merezi duela**. Hala iritsi baikara gaurdaino, borroka irabazietatik heldu gara honaino. Gazte Feministok, gure baldintzak baldintza, asko dira auzo eta herrietan aktibaturiko borroka eta erresistentziak eta, asko dira, beraz, eragindako aldaketa eta mugimenduak.

Bizi dugun momentua beraz, atzera egitekoa baino, **militantzia feministan berretsi, egindakoetatik irakaspenak bildu eta estrategia eraginkorrak osatzekoa da**. Helburu horrekin osatu dugu Agerreko Gazte Feministon bide-orria: nondik gatozen oroitzeko, baina batez ere, gure bidea zein den argitu eta nora goazen definitzeko. Fanzine politiko hau, beraz euskarri izan nahi du, herriz herri eta eskualdez eskualde antolatzen garen gazte feministontzako helduleku.

NOLA HELDU GARA HONAINO?



Gazte feministon mugimenduaren sorrera ulertzeko, garaiko testuinguru politikoari erreparatzea ezinbestekoa dugu. Garaia ulertzeak, sarea sortzea ahalbidetu zuten baldintzak zein sarearen hasierako forma ulertzea dakar.

Hasteko, Euskal Herriko Neska* Gazteak 2017. urtearen inguruan hasi zen sortzen. Urte horretan bertan, mundu mailako lehen greba feministak antolatu ziren martxoaren 8aren bueltan. Euskal Herrian, urte horretan, lehen paro feminista antolatu zen «Emakumeok* planto! Si paramos nosotras, se para el mundo» lelopean. Eta hura, oro har, hurrengo urteetan sortu zen eztanda feminista eta antolakuntza feministarako ongarria izan zen.

Garaian, feminismoak izandako loraldi horren eraginez, gazte feminista taldeak sortzen hasten dira herri desberdinetan. Gazte talde horiek feminismoaren baitan problematika eta kokapen propio bat dutela ohartzen dira, alegia, gazte eta neska* gazte gisa, problematika konkretuei erantzuteko beharra zegoela.

Ibilbidean zehar mugarri garrantzitsuak bizi izan ditugu: tartean 2019ko Euskal Herriko Jardunaldi feministak. Horietan ekarpena egiteko, lehen aldiz, Topaketa handi bat egin genuen Lizarran. Bertan, 300dik gora feminista elkartzeaz gain, Autodefentsa Feministaren gaineko hausnarketa eta

garapen politikoa egin genuen. Testuinguru horretan, Lizarrako Gazte Feministak (Egakume) sortu zelarik; Lizarraldeko zein inguruko eskualdeentzako eredu izanik: gaueko maniak, m8-ko performanceak,... Testuinguru horretan ere, Sugarrak Tuteran, Garrasika Tafallan sortu zirelarik.

Pandemia ostean, saretu eta elkartzeko inoiz baino behar handiagoa sentitu genuen, eta horrela izan zen Elizondoko Baterajotzean, lehen aldiz 600 neska* gazte elkartzean. 2020-21 garaia, loraldi gisa definitu dezakegu, maila lokal zein nazionalean egonkortu eta indartzeko eman baitzuen. Eta momentu horretan, Ager mailako –batik bat Nafar Erriberako, Erdialdeko eta Lizarraldeko– Gazte Feministak saretu ahal izateko eta zonaldean gazte talde feminista gehiago sortu ahal izateko sarea sortu genuen: Ager Sutan!

Harrezkeroztik, asko dira gazte feministok aktibatu ditugun borrokak: Zaintza greba eta horren bueltako ekintzak Erriberan, Distriku gazte talde transfeministaren sorrera Tafallan, gure herriko jaietan oholtzak hartu eta gizonik gabeko espazioak aldarrikatu ditugu, kaleak bete ditugu Mugimendu Feministak antolaturiko mobilizazioetan...



NONDIK EKINGO DIOGU?

Hiru zapalkuntza sistemen begiradatik

Hiru zapalkuntza sistema identifikatzen ditugu: kapitalismoa, patriarkatua eta kolonialismoa. Hirurak dira egiturazko dominazio sistemak, eta bakoitzak bere botere-harremanak, zapalkuntza mekanismoak eta gatazka propioak sortzen ditu.

Gizartea egiturazko botere-harremanek antolatzen dutela ulertzen dugu. Botere-harreman horiek interes antagonikoak dituzten klaseak sortzen dituzte. Horregatik, klase gatazkaz ari garenean, ez dugu soilik langileriaren eta burgesiaren arteko gatazka ulertzen, baita gizonen eta emakumeen artekoa, eta zurien eta arrazializatuen artekoa ere.

Botere-harreman desberdinak aitortzeak unibertsaltzat aurkezten dena, izatez, hegemonikoa dela agerian uzteko aukera ematen digu. Izan ere, unibertsala deitzen zaion subjektua ez da neutroa: gorputz eta posizio jakin bat du, gizon zuriarena, eta haren esperientzia eta interesak guztionak balira bezala aurkezten dira. Hori auzitan jartzeak gure errealitateak eta zapalkuntzak izendatzeko, horiek gatazka politiko gisa aitortzeko eta haiei erantzuteko aukera ematen digu.



Horrela, gure subjektu politiko propiotik antolatzeak eskaintzen dizkigun tresnez baliatzen gara. Feministok urteak daramatzagu patriarkatuaren boterearen eta inpunitatearen aurrean haserrea antolatzen. Oholtzetan, bileretan edota kuadrilletan garatu ditugu desobedientzia praktikak; espazio ez-mistoak antolatu ditugu; gizonen boterea neutralizatzeko eta oztopatzeko estrategia propioak eraiki ditugu.

Subjektu politiko ezberdinen potentzialtasuna aitortzetik abiatuta, batasuna eraikitzearen aldeko apustuan berresten gara. Guretzat, aniztasuna ez da eraldaketa sozialerako oztopoa, borrokak artikulatzeko abiapuntua baizik. Batasuna ez dago aurretik emanda: subjektu eta borroka ezberdinen arteko aliantzen bidez eraiki behar dugu, dominazio-harremanak eta gatazka politikoak aitortuz, pribilegioak suntsituz eta zapalkuntza-sistema guztien aurkako borrokak indartuz.



AGERREKO TESTUINGURU SOZIOPOLITIKOA



Herrialde oso zabal eta anitz baten parte gara. Nafarroa, lur eta izaera oso ezberdinez osatuta dago. Erromatarrak, baskoiak menderatze garaian, Saltus eta Ager Vasconum banatu zuten: Saltus Vasconum-a, lur menditsu, ezea... eta gutxien menderatu zuten zonaldea izan zen. Ager Vasconum-a, aldiz, lurralde laua eta gehien menderatu zutenekoa.

Mendeak pasa ostean, sumatzen jarraitu dezakegu gurea zatitutako lurralde bat dela. Haren aniztasuna probestua izan da, historikoki, gure lurra menderatu nahi izan duten horiengandik. Horra hor, euskararen zonifikazioaren legea edota Nafarroa konektatua egon ez dadin, egun dugun garraio publikoaren inexistentzia edota bidesarien banaketa.

Guzti honek, eragina du Nafarroako zonalde bakoitzeko errealitate soziopolitikoan. Eta horretaz oso kontziente da eskuineko españolismoa; besteak beste, feminismoa jopuntutzat duelarik. Kontziente baitira, feminismoa faxismoari aurre egiteko borroka oso eraginkorra eta estrategikoa dela. Ez da kasualitatea Ager zonaldeko emakume, trans eta bolleron aliantza ezak, edota Iruñera gure bizi proiektu zein militantzia garatzeko desira sentitzea.

Horretara etorri da Ager Sutan!; Ager zonaldeko –batik bat Nafar Erriberako, Erdialdeko eta Lizarraldeko– gazte feministak saretzera. Gure lurretan iraultza piztu, eta feminismotik eta feminismorantz, dena sutan jartzera!

ZERTARA GOAZ?

FEMINISMOTIK BIZI NAHI DUGU, ETA BAGOAZ!

Ez gaude inoren zain! Badakigu zein den bidea, eta badakigu, faxismoari aurre egiteko, gazte borroka feminista ezinbestekoa dela. Feminismoa, logika patriarkal, kapitalista eta arrazista guztiei planto egiten dion proiektu politiko bat delako. Planto egin, eta bestelako parametro batzuen baitan biratzen duen mundu bat eraikitzeko gaitasuna duelako: denon bizitzak erdigunean jartzen dituena.

Horregatik bizi nahi dugu feminismotik, eta ez edozein lekutan; gure zonaldean, gure herrietan. Ez gaude konforme dugunarekin, eta ez gara konformatuko gure bizitzak eta gorputzak inolako erasorik gabe garatu ahal izan arte. Eta horretarako, ezin dugu izebergaren punta besterik kudeatu. Horretarako, arazoaren errora jo behar dugu. Egitura patraiarkalak zalantzan jarri eta gozatzeko eta ondo pasatzeko aske izan nahi dugu. Bizitza gozagarriak eraiki nahi ditugu gure herri eta eskualdeetan bizi ditugun biolentziei aurre egiteko tresnak behar beharrezkoak ditugu, baina erasoak kudeatzeaz baino haratago joatea ezinbestekoa da benetan gure bizi proiektuak garatu ahal izateko. Gure sexualitatea aske esploratzeko, juergaz "kontuz ibili" gabe edota etxera lagunduta joan behar ez izateko, sare sozialetan bizi dugun kanon estetikoen bonbardaketak gure osasun mentalean ez eragiteko edota gure ikasketak zein lana genero mandatuei erantzun gabe aukeratzeko.

Bizitzak feminismotik eraikitzeko beharra dugu!

BERAZ, ZER DA GIDA HAU?



Esku artean duzun gidak bi perspektiba hauek hartzen ditu aintzat: **1) espazioen feministatzea eta 2) eraso matxistei zuzenean aurre egitea.** Bata bestea gabe zentzua galtzen dutelako. Alegia, biolentziei aurre egiteko urgentzia badugu, eta horretarako tresnak eta protokolo kolektiboak behar ditugu. Baina tresna eta protokolo horiek hankamotz geratzen dira, azalekoak bihurtzen dira, biolentzia erreproduzitzen duen sistemaren erroari erreparatzen ez badiogu; hau da, sistema horren logiketan arrakalak sortzeko biderik jorratzen ez badugu.

Horregatik, liburuxka honek ondorengo bi atal ditu:

1. **Patriarkatuari errotik arrakalak sortzeko proposamenak → Espazioak feministatzeko proposamen politikoak.**

   Honi esker, feminismotik bizitzak eraikitzen hasiko gara, sistema heteropatriarkal kapitalista zalantzak jarriz.

2. **Erasoei aurre egiteko gida → Gure herrietan indarkeria matxistari erantzuteko protokoloak.**

Bi atal hauek, proposamenez haratago, hausnartzeko aukera zabalduko digute. Sarreran esan bezala, herrialde oso anitz baten parte gara, eta Nafarroako Ager eremua ere, oso anitza den heinean, bizitzak feminismotik eraikitzeko borroka molde eta erreminta ezberdinak behar ditugu lekuan leku. Eta hori, bertako Gazte Feministok baino hobeto inork ez daki; beraz, horretaz kolektiboki hausnartzeko eta tresna propioak eraikitzeko ariketak izango ditugu txosten honetan zehar.

Hartu liburuxka, partekatu, zabaldu, batu zure lagun eta kide feministekin, elkarrekin hausnartu eta...

BAZTERRAK NAHASTU! IZAN ERREBELDE (;



FEMINISMOTIK BIZITZAK ERAIKITZEKO GIDA

1. Feminismotik bizi bai baino, zertaz ari gara?



"Ez gara hutsetik hasten. Mugimendu Feministan ibilbide luzea egin dugu. Egunero ari gara bide berriak eraikitzen erasoen aurrean zein datozen olatu erreakzionario eta zisheteropatriarkalei erantzuteko. Ondo dakigu testuinguru konplexu honek analisi konplexuak behar dituela berauren aurka borrokatzeko. Horren aurrean, gure apusturik sendoena askotariko ertzetatik eraikitako autodefentsa feminista da; ez soilik erantzun gisa, baita bizitzak erdigunean jartzeko tresna politiko gisa ere. Festak eta kaleak aldarriz betetzeko, plazeretik lehen lerroa hartzeko, espazio seguruak eta gozagarriak eraikitzeko. Plazak eta boterea eskuratzeko. Antolakuntza feministaren bitartez, sormenetik eta kolektibotasunetik, elkar zainduz nahiz aliantza eta sare feministak ehunduz:
KALEAK PLAZEREZ BETETZEKO BORROKAN ARI GARA".

- Bilgune Feminista

"Parranda egiteko gogoa zeukaten, baina espaziorik ez zuten pertsonen eskutik sortu da Iruñerriko Plazeratu.klub kolektiboa. Plazera erdigunean jarri, ikusarazi eta kuir komunitatearentzako jai seguruagoak sortzeko lanetan ari dira"

- Plazeratu

ARIKETA: *ESPAZIOAK FEMINISTATU*

1. **Diagnostiko bat egin**. Identifikatu zure herriko/bailarako sozializazio espazio nagusiak (adb: tabernak, jaiak, elkarteak, kirol eremuak...

2. **Sozializazio espazio horietan "termometro ariketa" bat egin**. Zein dinamika ematen dira? Zein dinamikek erreproduzitzen dute patriarkatua? Zeintzuek balio digute feminismotik bizitzeko?

    a. **Espazio bakoitzarekin taula bat egin**

Sozializazio espazio nagusiak	**Patriarkatua erreproduzitu**	**Feminismoa hedatu**

3. **Patriarkatua erreproduzitzen** duten dinamiken artean → zer dute haien artean amankomunean? nola egin aurre hauei? **izan utopiko!**

4. **Feminismotik bizitzearen perspektibatik** dauden dinamiken artean → zein eta nola potentziatu? **izan utopiko!**

5. **Epe motzera eta erralitatera ekarrita** → zertara goaz uda honetan? Oinarrizko 2-3 ideia hartu eta hauei forma eman (**pedreatu, amestu; utopiko izan!**). Ideiak zabaldu, forma eman, zein lan eskatzen duen definitu... eta **martxan jarri**!

2. Espazioak feministatzeko esperientzia kolektiboak

Ezagutza eta esperientziak kolektibizatzeak indartsuago egiten gaitu!
Atal honetan, gure zonaldean praktikan jarritako hainbat esperientzia jaso nahi izan ditugu: gure artean nahastu, babestu gaitezen; modu kolektiboan Ager feministago bat lor dezagun!







1. Gaueko manietan ez gaude gertatu den eraso bati erantzuten. Jaien aurretik zein jai ereduren alde gauden eta zer ez dugun onartuko argi uzten dugu. Honek, gainera, elkarren artean ahalduntzeko eta sareak sortzeko aukerak ematen dizkigu. Autodefentsa feminista ez da jotzen jakitea. Edo ez hori bakarrik behintzat: gure gorputzak, edozein modutan, defendatzeko prestakuntza psikologiko kolektiboa da.



2. Badakigu alkohola edo drogen kontsumoa ez direla aitzakia erasotzeko, Gizon asko, ordea, horretan babesten dira. Pedagogia hori egin eta gizonak, haien artean eta euren buruak zaintzean jartzen du fokoa kartel honek. Drogatzean ez badakizu ez erasotzen, ez drogatu.



3. Sexu praktika kontzienteak, askeak eta seguruak izateko informazio puntuek, kontzientzia hartzeko ez ezik, herrietan giro osasuntsu bat sortzeko potentziala ere dute. *Protokoloaren atalean kontakturako info. gehiago dago.

4. Sare Sozialetako bideo eta eduki ezberdinek feminismoa zabaltzeko eta normalizatzeko balio dute.





5. Jaien aurretik, aliantza feministak sortzeko eta elkarrekin konspiratzeko asanblada ez mistoak sortzeak, jaietan askeago eta seguruago sentiaraztea eragiten digu.



6. Azaroak 25 baten aurretik, feminizidioak problematizatzeko Lizarran egindako errepide mozketa eta Martxoak 8 baten aurretik, Tafallan egindako gaueko mania. Egoera desnormalizatuz, urgentzia bat mahaigaineratzea lortzen da.

7. Eszenatoki goian gertatzen denak, eragina du eszenatoki azpian gertatzen den horretan: nork hartzen duen lehen lerroa, nola dantzatzen den... bermatu denontzako espazio izatea.





8. ERAGIN ETA LERRATU DADILA HERRI OSOA FEMINISMOAREKIN!

Esperientziez aparte, proposamen berritzaileez amesteko tartea ere hartu dugu Ager Sutanekin, eta hauek konpartituko ditugu.

6. ERASO MATXISTEI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

"La ADF [Autodefensa Feminista] es una herramienta política que nos facilita poder entender el mundo que habitamos y nos habita. Es decir, lo que significa ser mujer en un sistema patriarcal que no solo tiene una expresión corporal, sino que supone una posición social de subordinación, indagando sobre los pilares de la normatividad de género, en lo relacional de ella derivada que sustentan la asimetría entre los géneros: el vínculo afectivo obligatorio, el amor romántico, el terror sexual, la indefensión aprendida, los malestares de género que nos enferman, la obligatoriedad de los cuidados, el síndrome de la impostora, la incapacidad para poner límites o ser tildada de exagerada o loca cuando los pones, y así un largo etc."

- Pikara Magazine



Patriarkatuaren irakurketa estrukturaletik abiatuta, ezinbestekoa da haren aurkako estrategia propioak garatzea. Hortaz, guretzat, autodefentsa feminista ez da tresna puntual bat, ezta indarkeria matxistaren adierazpen jakinei emandako erantzun soila ere; **patriarkatuaren aurkako borroka antolatzeko estrategia politikoa da**.

Indarkeria matxista patriarkatuaren adierazpen sistematiko gisa ulertzen dugu. Areago, erreakzio misogino, patriarkal eta transfoboa areagotzen ari den garaiotan. Horregatik, autodefentsa feministaren helburua ez da emakumeok eta sexu-genero disidenteok arriskutik babestea. **Patriarkatuak beldurra kontrol sozialerako tresna gisa erabiltzen duen heinean**, gure apustua ez da erreproduzitutako beldurraren logikara egokitzea, baizik eta hura politizatzea zapalkuntza orori erantzuteko gaitasuna ahalduntzeko.

Neska, bollera, trabesti, marika eta transok, bakoitza bere ibilbidetik gatoz eta indarkeria espezifikoak jasaten ditugu, baina nahiz eta ibilbide desberdinak izan, "norbera sentitzen den horrek" baino, patriarkatuagatik zapalduak izateak eta bere aurka egiteak elkartzen gaitu. **Proiektu politiko batek elkartzen gaitu**, sistema iraultzeko eta berri bat eraikitzeko nahiak eta konpromisoak. Finean, heteropatriarkatuaren boterearen aurka antolatzeak eta feminista izateak elkartzen gaitu.

Hala batasuna aldarrikatzen dugu, ideia erreakzionarioak zabaltzen ari diren testuinguruan bagaude ere, **Euskal Herriko Mugimendu Feministak argi du anti-terfa dela**.

Biolentzia eta prekarizazio orokortuak gazte feminista guztiok zeharkatzen gaituzte, baina **ez denok modu berean**: forma berezitu eta intentsifikatu bat hartzen du kide migratu eta arrazializatuen gorputzetan. **Erreakzio arrazista eta faxista** areagotzen ari den testuinguruan, **eraso zuzenak** ere areagotu dira. Gainera, hainbat medio, iritzi publiko eta instituzio **eraso sexistak ari dira baliatzen** lintxamendu, jazarpen eta **eraso arrazistak justifikatzeko**. Emakumeen babesaren aitzakiapean, arrazakeria zabaltzen ari dira, erasotzailearen profila desitxuratuz eta arrazializatuz.

Eraso misogino, homofobo eta arrazistak normalizatzen ari diren garaiotan, errealitatea feministak eraikitzeaz aparte, erasoei erantzun zuzenak emateko tresnak ere behar ditugu. Eta hauek ere autodefentsa transfeminista dira!

Jarraian, beraz, eraso matxistei aurre egiteko egin daitezkeen lanketak aurkeztuko dira, bi ikuspegi desberdinetatik: herri mugimenduetatik eta udaletxeetatik.

Herri mugimenduetatik

1. Lanketa proposamena → 3 atal

Fasea	Noiz?	Funtzio nagusia	Ekintzak/Zehaztapenak
1. PREBENTZIOA	Jaiak baino lehen, urtean zehar *Aurreko ataleko espazioak feminista tzeko hausnarketa guztiak hemen sartuko liratezke.	Erasoak prebenitu eta protokoloa ezagutarazi	**1. Propapaganda feminista** zabaldu: pankartak, eskuorriak, ...(QRa erabili). 2. Jaien **egitaraua** prestatzean..., pentsatu: zein gorputz jarriko ditugu eszenatokiaren gainean? (QRan hainbat ideia). **3. Kuña** bat prestatu: espazio hau denok gozatzeko dagoela oroitaraziz (hau ez da eraso bat salatzeko, giroa erosoa izateko baizik; logika berriak mahai gaineratuz) 4. Protokoloa azaltzen duen **bideo** bat egin eta sare sozialetan zabaldu.

2. KUDEAKETA	Jaietan bertan	Jaietan bertan eraso bat egonez gero, laguntza eske joan ahal izateko erreferentziazko figurak egotea: Brigada feminista (2 figura ezberdinek osatzen dute).	**2 figura**: 1. **Barrako kidea (peto morea)**: Funtzioa, salaketa puntua izatea eta erasotua izan denari arreta ematea da. · Erasotua espazio seguru batera eraman. · Intentsitatea baloratu eta lagundu: · Intentsitate baxua → lasaitu eta arreta · Intentsitate altua → 112ra deitu, akonpañamendua eta aholkularitza (arropa ez aldatu,...). *Laguntza gehiago behar izatekotan, jarri kontaktuan CAIVS-arekin (Centro de Atención Integral a las Violencias Sexuales) → 848 46 39 99 2. **Jai guneko 2 brigadista (peto moreak baino jarri gabe)**: Funtzioa erasotzailea kanporatzea izango da. Txandan egonen dira, baina normal jantzita eta jai gunetik, barrako kideari eraso bat salatuz gero, kudeaketan parte hartzeko. Hala ere, petoa gordeta haiekin izango dute kanporaketa bat egin behar izatekotan autoritatea ematen duelako.

3. ERANTZUN SOZIALA	Erasoa(k) eman eta hurrengo egunean edo publiko egitea erabakitzen denean	Salaketa soziala egitea; herriko gehiengoa indarkeriaren aurka dagoela adierazteko, modu kolektiboan eta kasu konkretuetaz hitz egin gabe; indarkeria estrukturala seinalatuz	Intentsitate altukoen kasuan (eta herri mailan ematen diren eraso guztien aurrean, ez bakarrik gure jai gunean) edo intentsitate baxuko eraso asko daudenean (kopurua lekuan leku zehaztu). · MF antolatua badago → MFaren izenean kontzentrazioa hurrengo egunean · MF antolatua ez badago → GMaren + Gazte Feministen izenean.

**Ariketa → Gure herrian nola lurreratu*

Ager zonaldean herri txiki pilo bat daude eta bertako sare eta harreman logikak eragiten dute protokoloa gehiago sinplifikatu edo konkretuago lurreratzea. Hartu oinarrizko 3 atal hauek eta pentsatu nola egin zure herrian.

Udaletxeetatik

Lanketa proposamena → GFT (Gazte Feminista Taldea) Udalarekin bilera bat egin hau koordinatzeko eta haien gain delegatzeko:

1. **Harrera Puntu Feministak** kontratatu. Herrian ematen diren erasoak, gazte jai gunetik haratago kudeatzeko eta prebentzioa indartzeko → Adibidez: BerHezi bezalako kontsultoriak kontratatuz edota Sare elkartea heziketa sexuala indartzeko.

BerHezi (Lizarraldeko berdintasun kontsultora, zonalde osoan lan egiten du) → https://www.instagram.com/berhezi.berdintasuna/
Sare (Iruñako GIB/HIES elkartea, osasun sexuala lantzen du) → https://www.instagram.com/asociacionsareelkartea/

2. **Tabernetako lanketa** → Herri mailako espazioetako erasoak kudeatzea udaletxeari delegatu. Udaletxeak + Mugimendu Feministak sinatuta eskema bat egin (QRan eskema proposamen bat eskuragarri) eta tabernetako kumunetan jartzea gure eskema antzekoa jarraitzen duena (barran salatu, erasotua babestu eta erasotzailea kanporatu).